

# azken afarian

-1-

Jesus maitea dago  
lagunen artean,  
pasko eguna ospatzen,  
azken afarian.

xamur dau begirada,  
goibela kopetan,  
xamurrak ditu berbak,  
xamurra danean,  
maitasuna gañezka,  
bere biotzean.

-2-

Mai-buru egiten dau,  
afari maiean,  
lagun-miñak dauzala,  
jarrita alboan.  
agur egiten dautse  
berba samiñetan,  
alde egiten doala,  
esanaz argitan,  
afaldarrak itxiaz  
tamal itzelean.

-3-

Orrelango tamala,  
eurengan ikusiz,  
senera ekarten ditu  
onoko mirariz:

-ogi ta ardo garbitan  
aldatuaz guztiz,  
nire gorputz ta odola,  
damotzuet egiz,  
pekatuak kentzeko,  
izango dan, oroiz.

-4-


Itz ederrenak auek  
entzun dituztenak,  
indartzeko izanik,  
lagunen biotzak.  
ez dituz, ez, itxiko  
iñoiz, artzai onak,  
larriak izanarren  
urrengo egunak.  
ondo zainduko ditu  
berek diranak.

-5-

Bildurrak artu ditu,  
nekaldi larrian,  
alkar banaturikan,  
ta nora ezean.

baña Jesusek. gero,  
il eta piztuan,  
maitez bilduko ditu,  
bere ondo-ondoan,  
mundua salbatzeko  
apostolu gizan.

Munetxek (bil. 2010)



# olerkia